

Martzelino Soroa

Alkate berria

Jostaketa Euskarara Moldatua
Gizon Bakarrentzat

euskaraz.net

2005

ALKATE BERRIA

JOSTAKETA EUSKARARA MOLDATUA GIZON BAKARRENTZAT.

MARZELINO SOROA LASAk

Erreal bat.

DONOSTIAN.

Pozoren moldizkiran.- Garibai kalean, 18 numeroan
1885garren urtean.

Egilearen beste jostirudiak.

IDIARENA.

ANTON KAIKU.

GAU ON.

HAU OSTATUA!!!

HAUEK ISTILUAK!

ALKATE BERRIA.

PREMIN IKAZKINA. (en prensa)

Liburutxo hau legez erara egilearena da.

AL DISTINGUIDO ESKRITOR Y ENTUSIASTA BASCÓFILO

DON ANGEL LOPEZ Y PLAZA.

A V., que admirador insigne de nuestra tierna y amada lengua, há querido aprovechar mis pobres enseñanzas honrando con sus rápidos progresos al amigo y al maestro, le dedico este ligero pasatiempo arreglado en pocas horas, para que le sean menos penosas sus lingüísticas tareas, seguro de que V. suplirá con su benevolencia, el mérito que le falte para que pueda ser digna recompensa del estudioso jóven que es hoy mi discípulo predilecto.

M. S. L.

EGILTZEAK.

ALKATEA.

ESKRIBAUUA.

SEKRETARIOA.
KAITANO *etxe aldekoa, erregidorea.*
BARTOLO, *afeitatzaila.*
SILVESTRE, *ijtoa.*
LORENTXO, *egur saltzaila.*
FELIPE, *kanpotarra.*
LUKANBIO, *agoazila.*
Herriko jendea.

Gertaera iruditzen da nahi den lekuan.

EGITE BAKARRA.

Iruditegian azaltzen da herri txiki bateko plaza. Alde batera kontzejuko etxea.

I LEHENBIZIKO IRUDIA.

Herriko jende batzuk kantari. Atzetik berriz erregidorea, sekretarioa eta beste batzuk eskribaua buru dutela. Lukanbio alde batean.

JENDEA
(Kantari)

Pozturik hemen gatoz
goizetik guztiak
gazte, zahar, txiki, handi
neskatxa eta mutilak.
Alaiturikan dago
gaur herri guztia
zergatik jarri duten
alkate berria.
Horrengatik daukagu
orain esperantza
plazan egingo dela
makina bat dantza.
Uren orde z gainera
iturri gozoa
barrenak piztutzeko
mahats nafarrekoa.
Goazen, goazen agudo,
egin ahalegina
bota ziririkoak
ta jo danbolina.
(*Doaz saltoka eta irrintzika.*)

ESKRIBAUA

Herri guztia zoratu dugu.

SEKRETARIOA

Ez da izan asmo txarra Triku alkate egitea.

ESKRIBAUA

Guri komeni zaiguna da haren bizkarretik gu...

ERREGIDOREA

Alkate izatea.

SEKRETARIOA

Hori da.

ESKRIBAUUA Harria tira...
ERREGIDOREA Eta eskua gorde.
SEKRETARIOA Nahi duguna egingo dugu. Bera ona da eta xamurra eta haur bat bezala dantzatuko dugu.

ERREGIDOREA Hori, hori. Eta gertatuko da: gogorrena alkate.
ESKRIBAUUA Guretzat sagar heldu gozoak eta beretzat...
SEKRETARIOA Geza-minak.
ESKRIBAUUA Errematean badakizue...
ERREGIDOREA Bai, bai.
SEKRETARIOA Afeitatzailearen izenean ardoak, aguardienteak, eta haragia...

ERREGIDOREA Baina ez ezer ere aditzera eman agoazilari, zergatik salduko gintuzke.

BESTEAK Ez, ez.
ESKRIBAUUA Orain jo dezagun atea, etxean ote den.
SEKRETARIOA Lukanbio, deitu ezak. Ondo hitz egin eta...
ERREGIDOREA Tragatuko du amua.
AGOAZILA (*Atea jota oihu egiten du.*) Biba gure alkate berria!
BESTEAK Biba! biba!

II

BIGARREN IRUDIA.

Lehengoak eta Alkatea. Oihuak aditurik afeitatzailea ere ateratzen da bere aurreko etxearen dendatik eta esertzen da inguruan dakarren aulki kaxkar batean.

ALKATEA Zer oihu dira hauek?
ESKRIBAUUA Egun on, Triku jauna? Ematen al digu berorren lizentzia?

ALKATEA Noiztik eskribau jaunak hitz egiten dit horren fin eta eskatzen du lizentzia?

ESKRIBAUUA Alkate berriari hitz egiten dionetik.
ALKATEA Zer esaten duzu?
ESKRIBAUUA Gatoz makila *bara* esaten zaiona, mendian jαιο – mendian hazi – herrira etorri eta nagusi – alkate jaunaren eskuetan jartzera.

ALKATEA Ni alkate? Utz nazazue bakean. Ez da hori egia.
ESKRIBAUUA Eskribau batek ez du behin ere gezurrik esaten.
ALKATEA Ez, e? A zer txoria! Txantxetako gogoa al daukazue?
BESTEAK Ez, jauna, ez.
ALKATEA Baina nik nire etxea *gobernatzan* ez dakidala, nola gobernatu behar dut herria?

ESKRIBAUUA Herriko bozek berorri deitu diote, eta hona non duen Lukanbio agoazila, arbasta, farola, esklabina eta hiru izkinako txapelarekin.

ALKATEA Ezin izan liteke hori zuen astakeriaren bat baizik.
Badakizue ni ez naizela horretarako.

ESKRIBAUUA Herriak egin du bere borondatea.

ALKATEA Bai: zuek maneaturako kazuelan. Ez naiz izango alkate.

ESKRIBAUUA Ezin desegingo da gauza, Triku jauna.

ALKATEA Ez, e?

BESTEAK Ez, ez.

ALKATEA Besterik ezin bada, izango naiz indarrean.

ESKRIBAUUA Lehenbizi egin behar du apaindu Lukanbiok emango dionarekin. Gero Kontzejura gurekin etorri, eta gero...

ALKATEA Gero, zer? Zein da hemen alkate, zuek edo ni?

ESKRIBAUUA (*Umilki*) Barkatu, jauna, baina hobe beharrez...

ALKATEA Jantz nazak, Lukanbio, eta goazen (*janzten du*)

BESTEAK Goazen, goazen.

III

HIRUGARREN IRUDIA

Afeitatzailea bakarrik (altxatzen da.)

AFEITATZAILEA Ez daude apareju txarrak eskribaua, sekretarioa eta beste guztiak! Hemen egiazko alkatea beti da sekretarioa. Honi laguntzen dio eskribauak eta bien artean egiten dute antxeta. Elkarrekin ez daudenean, berriz, mingainarekin larrutzen dira, bata besteari esanik zernahi zitalkeria.

Medikuak eta botikarioak ere ezin begiz elkar ikusi dute, batek errege behar dela, eta besteak errepublika komeni dela, beti mokoka daude, baina egunero ibiltzen dira biak adiskide handiak balira bezala, zergatik medikuak ematen dizkion errezetak botikarioari eta honek mintsuak hari; eta horrelaxe dabilta ere maisua eta erregidorea, harakina eta ogizalea, sakristaua eta danbolinteroa, eta barberua eta ni. Hona etortzen diren guztiek esaten dute: hau herri polita! hau baketasuna! hau jende elkar artekoa! Ederki bizi liteke hemen! Zortzi egun pasatuz gero ikusiko lukete nola barrenean dabilen prozesioa. Orain alkatearen eskuarekin nahi lituzkete surtatik gaztainak atera.

IV

LAUGARREN IRUDIA.

Afeitatzailea eta Lorentxo.

(Lorentxok dakar asto bat sorta egurrarekin eta honen gainean zintzilik oilar eder bat.)

LORENTXO (Oihuka) Egurra, egurra! Ederra eta merke. Ez ote dut salduko gaur egun guztian? Ez du balio basoan aritzeak. Aldean da hobeago pilotan saiatu eta Ameriketara diru puska bat irabaziaz joatea. Ez balitzait sasoiak joan! Egur ederra! Ihar-iharra! (Afeitatzaileari) Egun on: eros biezat kargatxo hau.

AFEITATZAILEA Karga guztia?

LORENTXO Bai; ez al da bada handia!

AFEITATZAILEA Zenbat balio du bere horretan?

LORENTXO Lehenbailehen gainetik kentzeagatik esango diot azkeneko hitza. Sei erreal.

AFEITATZAILEA Sei erreal?

LORENTXO Zertako alferrik jardun behar dugu?

AFEITATZAILEA Gehitxo iruditzen zait. Ez du horrenbeste balio.

LORENTXO Basoan ari den nekazariak diru pixka hori nahi lezake

AFEITATZAILEA Bost erreal.

LORENTXO Ezin dut. Gabonak inguruan dira eta ondo beharra da orain egurra zu bazterrean danbolinari eraginez egoteko, hantxe pipa hartuaz gozaturik, aditzen nola azolioek egiten duten pil-pil-pil; bisiguak zirt-zart eta gaztainek pin-pan.

AFEITATZAILEA Ez zaude azolio txarra zu! Ez dizut bost erreal baino gehiago emango guztiarengatik.

LORENTXO Nik guztia saltzen dut baina ezin liteke bostean.

AFEITATZAILEA Utzi orduan datorren urterako; hobeto ihartuko da.

LORENTXO Tira, tira; har beza bost eta erdian.

AFEITATZAILEA Hustu ezazu, bada, hustu. Niretzat izan behar du.

LORENTXO (Soka askatzen du eta oilarra uzten du alde batera.) Ez du tratu txarra egin ez.

AFEITATZAILEA Ekarzu lehenbizi behinik behin oilar hori.

LORENTXO Oilarra? Zertako?

AFEITATZAILEA Nirea delako.

LORENTXO Berorrena? Ez luke gutxi nahi! Berorrek tratua egin du egurrarekin.

AFEITATZAILEA Ez da hori egia. Nik erosi dizut karga guztia eta kargan zegoen oilarra.

LORENTXO Ez luke bada merke eman nahi galaia bere oiloari! Bizarra kentzen duen bezala nahi al ditu kendu oilarrak?

AFEITATZAILEA Nik esan dizut bost erreal t'erdi ematen dizkizudala karga guztiarengatik; zuk erantzun didazu karga guztia saltzen duzula, eta nik erantzun dizut orduan, ondo dela, husteko, azkenean niretzat izan behar duela. Eta oilarra nirea da.

LORENTXO Ez, jauna, nirea.

AFEITATZAILEA Baina... (hizketan isilka bere moduz aurrandatzan dira.)

V
BOSGARREN IRUDIA
Lehengoak eta Alkatea.

ALKATEA Alkate egin naute, ustean galtzaundi bat naizela. Nik garbituko ditut bazterrak. Lanera bidali dut jende guztia. Ez dugu astegun gorrian dantzarik eta festarik behar. Lulua naizen edo ez orain frogatuko, eta erakutsiko diet ez dela nire eskuetan okertzen justiziako makila.

AFEITATZAILEA (*Oihuka hasten dira*) Ez duzu, bada, eramango.
LORENTXO Ezta zu ere honekin geldituko.
AFEITATZAILEA Tratua tratua da.
LORENTXO Eta arrazoia arrazoia.
ALKATEA Zer gertatzen da hemen?
LORENTXO Alkate jauna, egin beza justizia.
AFEITATZAILEA Bai, jauna, bai: justizia.
ALKATEA Zuzen egingo da, behar den bezala. (*Deika*) Lukanbio! Lukanbio!

VI
SEIGARREN IRUDIA.
Lehengoak eta agoazila.

AGOAZILA Zer nahi du, alkate jauna?
ALKATEA Justizia egin behar diat.
AGOAZILA Har beza (*Ematen dio bara*)
ALKATEA Zer gertatu da hemen?
BIAK Jauna, nik...
ALKATEA Ixoooo! Batek hitz egin dezala lehenbizi. Esan, Bartolo, zergatik duzue oker hau?

AFEITATZAILEA Oilar honengatik.
ALKATEA Oilarra kulpagarri? Lukanbio, eraman ezak oilar hau kartzelara. (*Eramaten du eta berehala etortzen da*) Nola da kontu hau?

AFEITATZAILEA Jauna... nik erosi diot asto gainean zekarren karga guztia, eta oilarra nola batean zegoen, niretzat izan behar duela.

ALKATEA Egia al da hori?
LORENTXO Honek, jauna, erosi dit egur guztia, baina ez da oilarrik tratuan sartu.

ALKATEA Zuk esan diozu karga guztia saltzen duzula?
LORENTXO Bai, jauna, baina...
ALKATEA Ixoooo! Erantzun ezazu bakarrik galdetzen den gauzari. Eta zuk, Bartolo, zer esan duzu?

AFEITATZAILEA Nik, jauna? Niretzat gelditzen dela.
ALKATEA Orduan zuretzat izango da oilarra kartzelatik ateratzean.

LORENTXO Jauna, bost erreal t'erdian egurra eta oilarra astoaren gainean zegoelako?

ALKATEA Bai, bai; zertako izan zara horren astoa?

LORENTXO Eta beste batzuetan bezala ekarri banuen nire emaztea asto gainean? Bost erreal t'erdietan sartuko zen?

ALKATEA Emaztea, aditurik zuen tratua, itxi baino lehen jaitsi egingo zen asto gainetik. Oilarrak ere hori egin behar zuen.

LORENTXO Bada...

ALKATEA Esan dut. Adabaki horrek ez du antolatasunik, eta bakoitza bakean, doala bere bidean, ez bazaudete nahian egoteko estalpean. Lukanbio: to. (*Ematen dio bara*)

LORENTXO Nik sumatuko dut horratik... (*ahopean*)

ALKATEA Zer esan duzu?

LORENTXO Ezer ez, jauna. (*Doa bere astotxoarekin eta afeitatzailea ari da etxean egurra sartzten.*)

VII

ZAZPIGARREN IRUDIA.

Alkatea eta Agoazila.

(Agoazilak esaten du bere gisa, alkatea plazan gurdi bati begira dagoen bitartean.)

AGOAZILA Ez dakite oraindik norekin dabilizan. Kartzelan sarrarazi ez dituenen, baleudeke pozik! Dantzarik nahi ez duela esan du eta utzi ditu penaturik herriko neska guztiak. Erdi negarrez etorri dira niregana Maiñaxi Errota azpikoa, Mikela Etxe aldekoa, Joxepa Erramuna Aldapakoa, Aintoni Mendiburukoa, Juana Mari Errekakoa, Luisa Etxezarrekoa eta beste guztiak, eta hain poliki eta maitasunarekin eskatu didate uzteko pixka bat danbolinean dantzatzen, kupitu eta baietz esan diet.

VIII

ZORTZIGARREN IRUDIA.

Lehengoak eta Erregidorea.

ERREGIDOREA Etxean al dago alkatea?

AGOAZILA Hor dago. (*deika*) Alkate jauna.

ALKATEA Zer?

AGOAZILA Hona non duen...

ERREGIDOREA Ni nator Kiteri okerraren partetik.

ALKATEA Justizia egin behar al da?

ERREGIDOREA Bai, jauna.

ALKATEA Lukanbio...
 AGOAZILA Har beza (*ematen dio bara*)
 ALKATEA Esan agudo eta argitasunarekin.
 ERREGIDOREA Horra bada. Migel Marik eman omen zion Arroxa Intxaurregikoari ezkontzeko hitza eta gero damutu egin zitzaioa. Baina bart gauean teilatutik teilatuta ibilirik tximiniatik nahi zuela sartu, bere asmoarekin atera gabe porrokatu egin duela...
 ALKATEA Zer?
 ERREGIDOREA Tximinia.
 ALKATEA Eta zer nahi du?
 ERREGIDOREA Konpontzea edo pagatzea.
 ALKATEA Ukatua dago.
 ERREGIDOREA Ukatua? (*harriturik*)
 ALKATEA Bai, ukatua.
 ERREGIDOREA Baina nolatan eta zergatik?...
 ALKATEA Zergatik? Zergatik ni naizen herri honetako alkatea, herria egiten du hemen teilatutik behera bizi den jende guztiak. Gauza hori teilatutik gora gertatu da, eta nire justizia ez da haraino ailegatzen.
 ERREGIDOREA (*Bere buruari*) Eta gero luluu dela esango dute hau?
 ALKATEA Lukanbio: to. (*Ematen dio bara.*)

IX
 BEDERATZIGARREN IRUDIA.
Lehengok eta kanpotar bat.

KANPOTARRA Barkazioarekin, zein da berootan alkatea?
 ALKATEA Zer nahi zenuen?
 ERREGIDOREA Nire etxean dagoena.
 KANPOTARRA Ni nator justizia bila.
 ALKATEA Justizia? Lukanbio!
 AGOAZILA Har beza. (*Ematen dio bara*)
 ALKATEA Has zaitez nahi duzunean.
 KANPOTARRA Horra, bada: bart etorri nintzen herri honetara, galdetu nuen non zen ostaturik onena eta esan zidaten erregidorearen etxean, kale izkinan. Goizean goiz joateko moldatzen ari nintzela eskatu dut kontua. Ekarri didate, ikusi dut eta gelditu naiz ahoa zabalik, zergatik lapurreta bat den.
 ALKATEA Erregidorea, zurekin doa hori.
 ERREGIDOREA Gezurra esaten du. Nire etxean ez da lapurretarik egiten.
 KANPOTARRA Irakur beza, alkate jauna, nahi badu, eta sudurraren punta moztu diezadatela ez badu nik bezala esaten.
 ALKATEA Irakur ezak, Lukanbio.

AGOAZILA (Irakurtzen) Ohe batengatik zintzilikarioekin... hamalau erreal.

ALKATEA Hamalau erreal?

ERREGIDOREA Alde guztietan hori eskatzen da gaurko egunean.

ALKATEA Aurrera.

AGOAZILA Lo egiteagatik... lau erreal.

ALKATEA Eta ohea jarria egoten al da?

ERREGIDOREA Bai eta honek hain lo pisua du... horrengatik.

ALKATEA Orduan mozkor batek zenbat pagatzen du, hogeit erreal? Aurrera.

AGOAZILA Eper saltsan haragia, tipula eta baratxuriek... hamasei erreal.

ALKATEA Mokadu garestia da hori.

AGOAZILA Plater bat angulengatik... hemezortzi erreal.

ALKATEA Oriokoak al ziren?

KANPOTARRA Oliokoak?

ALKATEA Oriokoak.

ERREGIDOREA Ez; Loiolakoak.

ALKATEA Hainbat gaiztoago. Aurrera.

AGOAZILA Piper gisatuengatik... zortzi erreal. Hiru lakari zaldalerengatik...

ALKATEA Hiru lakari jan zituen jaun honek?

ERREGIDOREA Ez, bere zaldiak.

AGOAZILA Hamar erreal. Kikara txokolatea... lau erreal.

ALKATEA Handia al zen kikara?

KANPOTARRA Titarea adinakoa.

ERREGIDOREA Baita pixontzia adinakoa ere.

KANPOTARRA Ez da egia.

AGOAZILA Guztitara jotzen du... hirurogeita hamalau erreal.

KANPOTARRA Esan biezat orain, alkate jauna, arrazoia nuen edo ez.

ALKATEA Eta hainbeste! Lukanbio, eraman ezak erregidorea kartzelara.

ERREGIDOREA Baina...

ALKATEA Kartzelara. (Gogor) Eta zuk, hogeita hamar erreal emanda, kontua pagatzen duzu.

KANPOTARRA Har bezate. Hau da hau justizia egitea! Adio.

ALKATEA Ondo ibili. (Doala deitzen dio) Adi ezazu, adiskidea: ba al duzu txartelik?

KANPOTARRA Zer txartel?

ALKATEA Cedula personal esaten diotena. Ez al dakizu euskaraz?

KANPOTARRA Etxean utzi dut ahaztuta.

ALKATEA Zer! txartelik ez? Lukanbio, eraman ezak jaun hau kartzelara.

KANPOTARRA Baina alkate jauna...

ALKATEA Ez dut ezer ere aditzen. Erregidorea eta zu kartzelara. Agudo.

KANPOTARRA Hau animalkeria bat da.

ALKATEA Zer esan duzu? Animalkeria? Lukanbio, lotu ezak ondo kalabrote batekin (*joaten dira*). Ez zen, bada, besterik falta. Zedularik gabe! Nik garbituko ditut bazterrak! Orain ardandegia ikusi behar dut.

X

HAMARGARREN IRUDIA.

(*Azaltzen da Lorentxo egur saltzailea ez ezagutzeko moduan ondotxo jantzia, aurpegian painelua edo bizar antzekoa eta gainera begi-ordeak dituela. Alkateak joaterakoan ikusirik, esaten du:*)

ALKATEA Zein ote dugu orain hau? Egun on. Hemengo aldi?
Bai... jauna... (*pixka bat larri.*)
ALKATEA Ondo, ondo. Adio.
LORENTXO Bihoa ondo.
ALKATEA (*Bere gisa*) Zertako eskatuko diot txartela? Onenean besterena izango du eta... Badaezpada esango diot Lukanbiori kontu hartzeko.

XI

HAMAİKAGARREN IRUDIA.

(*Lorentxo bakarrik.*)

LORENTXO Ez nau ezagutu! Ez naiz txarretik atera! Oraintxe afeitatzaile tripa handi horrek pagatu behar dit eraman didan oilarra. Alkateak ez nauenean ezagutu, gutxiago ezagutuko nau zomorro horrek; hemen da bera.

XII

HAMABIGARREN IRUDIA.

Lorentxo eta afeitatzailea.

LORENTXO Egun on.
AFEITATZAILEA Egun on digula.
LORENTXO Ez da alde honetan bizi afeitatzailea?
AFEITATZAILEA Ni naiz, zerbitzeko.
LORENTXO Horra, bada: ni nator afeitatzera edo bizarra ebakitzera, beste izkina horretan gelditu den lagun batekin eta nahi nuke jakin zenbat eramango gaituen biei.
AFEITATZAILEA Sei koarto bakoitzarengatik.
LORENTXO Ondo da. Baina jakin behar du nire laguna dela oso bizar lirainekoa.
AFEITATZAILEA Ez dit axolarik. Esku xamurra dut nik.

LORENTXO Laguna ekartzera noa, bada.
AFEITATZAILEA Bazkaritako koartillo ardoa irabazi dut.
LORENTXO (*Astotxoarekin*) Arre, arre; hona non duen nire laguna, eta kontuz labana ibili zergatik azal fina duen.

AFEITATZAILEA Zer! Nik astoa afeitatu?
LORENTXO Jarri, jarri zapia lehenbailehen.
AFEITATZAILEA Baina zu mozkorra zaude edo zer?
LORENTXO Berriketa gutxi eta tratua, tratua da.
AFEITATZAILEA Mila deabru!
LORENTXO Baita lau mila ere, nahi badu.
AFEITATZAILEA Ez dut afeitatuko.
LORENTXO Ez, e? Jakin beza, bada, oilarraren jabea naizela, eta ez badu afeitatzen, alkateari deituko diodala.

AFEITATZAILEA Ez zen hori tratua.
LORENTXO Oilarrarena ere ez zen hala tratua, baina nahaspila bat sortu dit eta beste nahaspila batekin pagatzen diot. Astotxoa berorren zain dago.

AFEITATZAILEA Topa iezaiozu, bada, behorra.
LORENTXO Eta jar biezaio zapia edo aski ez bada maindirea.
AFEITATZAILEA Lehenago afeitatuko nuke balea.
LORENTXO Balira guztiak berori bezalakoak, agudo mundua lurperatuko litzateke. Ea, agudo, bilguman hitz egin behar du eta...

AFEITATZAILEA Alferrik zabilta.
LORENTXO Bai? (*Alkatea agertzen da alde batetik*) Alkate jauna hemen dator eta nik eskatuko diot justizia.

AFEITATZAILEA Baina gizona...

XIII

HAMAHIRUGARREN IRUDIA.

Lehenagoak eta Alkatea.

LORENTXO Alkate jauna, justiziaren beharrea nago.
ALKATEA Justizia? Itxoin beharko duzu pixka bat zergatik agoazilak eraman duen... baina hemen da bera.

XIV

HAMALAU GARREN IRUDIA.

Lehenagoak eta agoazila.

AGOAZILA Jauna, giltzapean gelditu dira, agindu duen bezala.
ALKATEA Ondo lotu duk erregidorea?
AGOAZILA Eustarri bat baino hobeto.
ALKATEA Orain, bada, Lukanbio, justizia egin behar diat.
AGOAZILA Har beza, (*Emanik bara*)
ALKATEA Zer da hemen?
BIAK Jauna...

ALKATEA Batek hitz egin dezala. Zuk nola duzu izena?
 LORENTXO Lorentxo, jauna.
 ALKATEA Hasi bada.
 LORENTXO Ni naiz, jauna, edo nintzan, lehengo oilarraren jabea.
 ALKATEA Bai, e? Lotsagabea! Eta komedia bezala egiteko jantzi al zara horrela?
 LORENTXO Horra bada. Nik galdetu diot honi afeitatuko gaituen ni eta nire laguna. Baietz esan dit. Zenbatean galdetu diot, seina koarto bakoitza erantzun dit. Eta orain ez du afeitatu nahi nire laguna.
 ALKATEA Egia al da hori?
 AFEITATZAILEA Bai, jauna. Baina nik ez nuen uste laguntzat zuela astoa.
 LORENTXO Ezta nik ere ez nuen uste karga egurrean sartzen zela oilarra.
 ALKATEA Bartolo, berehala afeita ezazu astoa.
 AFEITATZAILEA Nik? Lehenago lehertu.
 ALKATEA Bai? Lukanbio, eraman ezak afeitatzailea kartzelara.
 AFEITATZAILEA Alkate jauna...
 ALKATEA Ezta hitzik ere.
 LORENTXO Hori da justizia egitea.
 ALKATEA Eta zu, Lorentxo, zure eskuz justizia egin nahi zenuelako gorderik gorrotoa, kartzelara Bartolorekin.
 LORENTXO Arrazoiarekin nik...
 ALKATEA Ez da arrazoirik uste den gaitz bat beste batekin pagatzean.
 LORENTXO Eta oilarra?
 ALKATEA Bien artean kartzelan jango duzue (*Doaz*).

XV.

HAMABOSGARREN IRUDIA.

Alkatea bakarrik.

Naiz edo ez alkate? Zer uste zuten? Txantxetakoa izango nintzela *hombre chaparo* bat bezala? Oraindik handiagoak ikusi behar dituzte zuzen ibiltzen ez badira. Ardandegian ere aurkitu ditut zulo batzek nondik sartzen diren iturriko urak eta...

XVI.

HAMASEIGARREN IRUDIA.

Alkatea eta ijitoa.

IJITOA Berorri da, beharbada, eskribau jauna?
 ALKATEA Ez naiz ni, ez. Eta zu zein zara?
 IJITOA Ni, jauna? Neronek ere ba al dakit?
 ALKATEA Nongoa zara?

IJITOA Edozein lekutakoa. Alde guztietakoa eta inongoa ez.
 ALKATEA Zer lanetan saiatzen zara?
 IJITOA Ni jauna? Zestoak egin, zestoak saldu eta belarri luzei
 ilea mozten guraize hauekin (*Ateratzen ditu guraize
 handi batzuk.*)

ALKATEA Ijitoa zara, beraz?
 IJITOA Hala deitzen omen digute.
 ALKATEA Eta non bizi zara orain?
 IJITOA Orain? Hemen ordu erdi honetan.
 ALKATEA Bakarra zara?
 IJITOA Bakarrik etorri naiz, baina nire emaztearekin eta
 astoekin bederatzi biltzen gara.
 ALKATEA Orduan astoak zortzi dira?
 IJITOA Bederatzi nahi badu berorrek.,.
 ALKATEA Niri bi faltatu zaizkit bada eta...

XVII.

HAMAZAZPIGARREN IRUDIA.

Lehengoak eta Agoazila.

AGOAZILA Alkate jauna...
 ALKATEA Lukanbio, justizia egin behar diat.
 AGOAZILA Har beza, eta jakin behar du...
 ALKATEA Zer?
 AGOAZILA Lepoa jarriko nukeela ez badira gureak soro txikian
 ikusi ditudan bi astoak besteen tartean.

IJITOA Asto haiek nireak dira.
 ALKATEA Bai, e?
 AGOAZILA Ezagun da pintatuak daudela, baina kopetako marka
 berbera dute eta gainera nirekin nahi zuten etorri.

ALKATEA Lukanbio, eraman ezak gizon hau kartzelara. To.
 (*emanik bara*)

IJITOA Kartzelara?
 ALKATEA Bai, kartzelara eta ixooo! (*Doaz*).

XVIII.

HEMEZORTZIGARREN IRUDIA.

Alkatea, bakarrik.

Eta astoak justiziaren kontu geldituko dira! Ez da besterik falta gure ganaduak horien mende gelditzea! Baina probintzia honetan nondik sortzen dira ijito hauek? Zabaltzen dira bastanga bezala eta azerien eta ijitoen artean husten digute etxe guztia. Eskerrak orain probintziako aitek agindu dutela garbitasuna egiteko eta ez dugula izango horrelako alde gaiztokorik.

XIX.
HEMERETZIGARREN IRUDIA.
Alkatea eta Kaitano.

KAITANO Alkate jauna...

ALKATEA Zer habil, Kaitano?

KAITANO Oker bat desegitea nahi nuke.

ALKATEA Hobeia izango duk zuzentzea.

KAITANO Atzo arratsean tabernan nengoela lagunekin, sartu zen sekretarioa eta nola nire eguna zen eta arratsaldeko tripa festa ederra egin genuen, nekarren burua...

ALKATEA Bero xamarra, e?

KAITANO Eta sekretarioak baso pare bat ardo aterarik eta hitz eztekin txurikaturik, eginarazi zidan paper bat...

ALKATEA Nola?

KAITANO Badaki aspaldian Martintxok erosi nahi didala zubi gaineko etxea gaztainalde guztiarekin, eta ez zidala eman nahi nik eskatzen nion adina...

ALKATEA Bai, bai...

KAITANO Bada, sekretarioa, lehendik nirekin haserre egonik, halere, adiskide moduan azaldu zen eta egin zituen ahaleginak ni Martintxoren aldera jartzeagatik.

ALKATEA Eta nork ditik kulpak?

KAITANO Jauna...

ALKATEA Hire krak, krak, krak. Zergatik harrapatzen dituk korapilo horiek?

KAITANO Nola nire eguna zen...

ALKATEA Urteko egun guztiak hireak izaten dituk. Inork ez zuen ikusi nola gertatu zen hori?

KAITANO Bai, jauna.

ALKATEA Eta zerbaitez konturatu ziren?

KAITANO Uste dut baietz. (*Sartzen da Lukanbio.*)

ALKATEA Adituko zieat, bada, bere denboran. Eta zer desio zekarren sekretarioak kontu hori horrela erabakitzeke?

KAITANO Nola Martintxo bere alabarekin ezkontzeko dagoen...

ALKATEA Aaa! Ez duk motela, ez!

KAITANO Gainera eskribau jaunak kendu dizkio nire lehengusuari zeramatzan arto lurrak, boza berorrenzat eman ez duelako.

ALKATEA Hori ere badugu? Lukanbio (*deika*)

AGOAZILA Jauna.

ALKATEA Hoa kontzejura eta sekretarioa etortzeko, eskribaua ere bai, baldin han badago, bestela hoa bere etxera agudo. (*Kaitanori*) Eta, zein lehengusuri kendu dizkio lurrak?

KAITANO Tomax aldapa handikoari.

ALKATEA Adituko zieat, bada, hiri bezala, batari eta besteari eta nire neurrian justizia egingo diat, behar den bezala, zergatik legearen aurrean kontu batean dira txikiak

nola handiak, eta guztiak bere bidean hartuz gero, beste moduz joango da mundua. Nik ezagutzen dut zergatik egin nauten alkate. Nire bizkar nahi zuten horiek barre egin, baina, bere ustean lorea aurkituko zuten lekuan, topatuko dute asuna. Gauza doan moduan herriko kartzela zabaldu beharko dugu, edo beste berri bat egin. Hemen datoz bi txori hauek.

XX.

HOGEIGARREN IRUDIA.

Alkatea, Eskribaua, Sekretarioa eta Agoazila.

ESKRIBAUUA Zer dugu, alkate jauna? Gauza handiren bat gertatzen al da horrelako estuasunarekin deitzeko? (*Barrez bezala*)

ALKATEA Ez daukagu gaitik. Komediaren bat dela uste al duzu hau?

ESKRIBAUUA Ez beza txarrera hartu...

ALKATEA Lukanbio, justizia egin behar diat.

AGOAZILA Har beza. (*Ematen dio arbasta*)

ESKRIBAUUA Zer ikusi behar ote dugu hemen? (*Ahopean*)

ALKATEA Sekretario jauna: egia al da Kaitanori eginarazi zeniola bart paper bat Txomin Pitxarren tabernan? Bai edo ez?

SEKRETARIOA Eginarazi, ez.

ALKATEA Nola?

SEKRETARIOA Egin zuen bere gogoz.

ALKATEA Ez al zenuen ezagutu zer modutan zegoen?

SEKRETARIOA Umore onarekin.

ALKATEA Bai, e? Lukanbio, eraman ezak Sekretarioa kartzelara.

SEKRETARIOA Zer? Ez zen horrengatik...

ALKATEA Ez, e? Kartzelan argituko duzu, bada, kontu hau. (*Eskribauari*) Eskribau jauna: egia al da zure maizter Tomaxi kendu dizkiozula zeramatzan lurrak, boza eman ez zuelako zuk nahi zenuen aldera?

ESKRIBAUUA Ez, jauna. Nik lurrak kendu dizkiot baina...

ALKATEA Lukanbio, eraman ezak Eskribaua kartzelara Sekretarioarekin batean.

ESKRIBAUUA Zer? Fedea kartzelara?

ALKATEA Fedea? Elizan fedea.

ESKRIBAUUA Nondik sortu da gizon hau? Ez digu petardo txarra eman!

ALKATEA Zer arrosario ari zara erreztatzen? Eta hik, Kaitano, ba al dakik zer den justizia?

KAITANO Berorrek ederki egiten duena.

ALKATEA Errespetatzekoa al da?

KAITANO Bai, jauna.

ALKATEA Eta errespetatzen denari ez zaio txapela ateratzen?

KAITANO
ALKATEA Bai, jauna.
Zergatik ez duk, bada, atera? Lukanbio, eraman ezak kartzelara Kaitanoren txapela. (*kentzen dio*) (*Aditzen dira oihu batzuk eta danbolin soinua*) Zer da hori? Ez dut agindu ez soinurik jotzeko eta dantzarik egiteko?

AGOAZILA Jauna, herriko neskatxa guztiek eskatu didate pixka bat uzteko, eta esan didate hain ezti...

ALKATEA Ezti atzera nire aginduak horrela desegin? Lukanbio, hoa hemendik kartzelara.

AGOAZILA Ni ere bai? Ez da justizia errespetatzen ere.

SEKRETARIOA Hona, jauna, honen papera. Oker iruditzen bazaio, desegingo dugu.

ALKATEA Desegin bada. Eta gaurkoarengatik uzten zaituztet zuzen ibiltzeko hitzarekin. Lukanbio, atera itzak beste kartzelan daudenak eta ez naiz gehiago alkate. Frogatu nauzue.

SEKRETARIOA Herri guztiak eta guk nahi dugu berori izatea.

BESTEAK Bai, bai.

ALKATEA Hala nahi bada, bada izango naiz; baina zuzen ibili guztiak, bestela badakizue ostatu berria, eta kontentu gauden seinalean kanta dezagun zortziko polit bat. (*Beste guztiak etortzen dira eta kantatzen dute*)

ALKATEA Desegokizko gauzak
ikusirik hemen,
ez izan horrengatik
kezkarik barrenen.
Horrelako nahaspilik,
jaunak, orain eta lehen
gure mendi tartean
ez dira gertatzen.
Probintzi hontan bizi
da leial jendea,
denbora zaharretatik
izanik noblea.
Bata bestearentzat
parerik gabea,
lana franko topatzen
beste bat hobea.
Txalorik aditu gabe?
gu joan? Zer ikara!
Ekarzak, Lukanbio,
justiziko bara.
Ez badute gogotik
hartzen gure euskara
denak eraman itzak

AGOAZILA Nora?

ALKATEA Kartzelara.

BUKAERA